

# Ondarroan

ETXELILA  
Emakumin  
Topaleku

2020-2021  
PROGRAMAZIOA



eztabaidagune feminista + emakumeentzako jabekuntza eskola  
+ parte-hartze guneak + erakusketak



Eskuartean duzun hau Etxelila Emakumin Topalekuaren 2020-2021 ikasturteko programazioa da. Aurten, egoera berriaren aurrean, berrituta gatzogu ere. Izan ere, ohiko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaz gain, Eztabaidagune Feminista ere izango dugu Etxelilan.

Geure buruak eta elkar zaintza dagokigu, eta horregatik, momentu bakoitzean indarrean dauden neurriak hartu beharko dira.

Momentuko aforoaren mugak errespetatu beharko dira; horregatik, hitzaldi eta tailer irekietara ordurako etortzea eskatzen dizuegu, eta aforoa betetzen bada, errespetatzea.

Bestetik, beharrezkoa denean, egoeraren arabera baloratu eta jakinaraziko dira egin beharreko moldaketak. Aurrez aurreko jarduerak ezingo balira egin, era telematikoan eta plataforma digitalen bitartez eskaintzen saiatuko gara, posible den kasuetan.



# eZtabaidagune feminista 2020-2021



Etxelilako eskaintza COVID-19ak eragindako errealitate berrira moldatzeko asmoz, ohiko Emakumeentzako Jabekuntza Eskolaz gain, **jar-duera irekiez** osatutako proposamen bat prestatu dugu aurten: **Eztabaidagune Feminista**. Honen helburua herritar guztiei zuzendutako jarduerak antolatzea da, aditu batek gidatuta, hausnarketa eta eztabaida feministak garatzeko espazio bat irekiz. Etxelilan egingo dira jarduera hauek, eta ez da beharrezkoa izango aurretiaz izena ematea.

**2020ko URRIAK 22, eguena \* 19:00etan**

**adimen gaitasun handiak eta emakumeak.  
Potentzialitatea ez dezagun  
patologia bilakatu**

**Alazne Goikoetxea Garate**

Haur Hezkuntzako hezitzailea, psikomotrizista,  
arreta goiztiarren aditua

Hezkuntza munduan pil-pilean dagoen gaia dugu Adimen Gaitasun Handiak dituzten ikasleena. Hala ere, orain arte ikusarazi ez den errealitate bat dugu Adimen Gaitasun Handiak dituzten emakumeak eta elikadura-jokabidearen nahasmenduaren artean egon daitekeen erlazioa. Hitzaldi honetan fenomeno bi hauen artean dagoen erlazioari buruz hitz egingo dugu.

**2020ko AZAROAK 18, eguaztena \* 18:30-20:30.**

**marxismoaren eta feminismoaren talkak  
euskal herrian gaur egun**

**Miren Lizarzaburu García**

Filosofiako ikaslea eta militante feminista

Transfeminismoa eta klase-feminismoaren arteko eztabaidak.  
Teresa Larruzea, Jule Goikoetxea eta Iosu Motaren arteko eztabaida landuko da.

>>>

**2020ko ABENDUAK 1, martitzena \* 19:00etan**

**iraganeko eta gaur eguneko sorgin ehizak**

**Amaia Astobitza Uriarte**

'Kapitalismoa eta emakumeen aurkako indarkeria'  
(Katakarak, 2020) liburuaren itzultzailea

"Kapitalismoa eta emakumeen aurkako indarkeria" liburuan, Silvia Federicik "Caliban eta sorginak" liburuaren bertsio laburtu eta irakurterraz bat eskaintzen digu, baina ez hori bakarrik. Horrekin batera, gaur egun Afrikako zenbait herrialdeetan eta munduko beste toki batzuetan gertatzen ari diren sorgin-ehizak ere aztertzen ditu, eta azaltzen du nola XVI. eta XVII. mendeetako sorgin-ehizen eta gaur eguneko atzean arrazoi berak ezkututzen diren.

**2020ko ABENDUAK 16, eguaztena \* 18:30-20:30.**

**queer teoriara sarrera**

**Miren Lizarzaburu García**

Filosofiako ikaslea eta militante feminista

Generoaren deseraikuntzaren teoria zahar eta berriak ertzetatik, Monique Wittig-en pentsamendu heterozuzenarekin sarrera eta Donna Haraway-ren zientzia, cyborgak eta emakumeen eskutik gaurkotzea.

**2021eko MARTXOAN. Data aurrerago zehaztuko da**

**'andre zaharren manifestua' liburuaren  
aurkezpena eta solasaldia**

**Mari Luz Esteban Galartza**

Antropologa, idazlea eta ekintzaile feminista

Andre zaharren errealitatearen inguruan gogoeta politikoa falta dela eta, horretaz pentsatu, hausnartu eta eragitera dator Andrezaharren Manifestua.  
*«Manifestu bat da/ gure gaia eta gure gizartearen/ arrazoiaren aurka idaztea/ leho bat zabaltzea etorkizunera»*

**2021eko APIRILAK 20, martitzena \* 19:00etan.**

**Feminismoaren gaur egungo erronkak**

**Teresa Maldonado Barahona**

feministaldeko kidea eta Filosofia irakaslea

Feminismoaren zereginen artean, zeintzuk izan behar dute lehentasunak gaur egun? Galderari ganoraz erantzun ahal izateko egungo egoera diagnostikatu behar da, zehaztasunez. Feminismoaren ikuspegirako kontuan izan behar dira hainbat puntu: azken urteetako arrakasta itzela mobilizazio feministetan, aurreko urteetan ezin zitekeena aurreikusi; eskuin-muturreko feminismoaren kontrako mezu esplizitua; gizarte mailan emandako aurrerapausoak eta egi-teke gelditzen dena.

>>



# emakumeentzako jabekuntza eskola 2020-2021



## MATRIKULAZIOA • informazioa

• **Ikastaro bakoitzaren prezioa:** 5- 10 euro. Oinarrizko errenta jasotzen dutenek eta 20 urtetik beherako gazteek, ostera, %50eko deskontua izango dute.

• **Plaza-kopurua:** Ikastaro bakoitzeko lagun-kopurua bete ahala itxi egingo da matrikulazioa. **Talde bakoitzeko, gutxienez, 7 lagun.**

• **Izena emateko:** Matrikula-fitxa bete eta ordainketa egin behar da. Goizetan, Udal Diru-Bilketa bulegoan (Kantoipe 3an) egiteko aukera egongo da, eta arratsaldeetan, **Etzelilan** (Artibai 3, goiko pisuan). Matrikula ez da onartuko matrikula-fitxa bete eta ikastaroa ordaindu arte. Eta behin matrikula eginda, baja emanez gero, ez da dirurik itzuliko.

## Emakumeentzako Jabekuntza eskolako ikastaroak ETXELILAn egingo dira.

Bertara joan matrikula egiteko eta informazio gehiago jasotzeko.



feminismoa



osasuna



kultura



osasuna



munduko emakumeak elkarrekin



partekatze zuzen

osasuna  
eta  
sufizialtasuna

osasuna

partekatze zuzen



## haurtzaindegi zerbitzua TXIRRIMORRASKI

Ikastaro guztietarako eskainiko da haurtzaindegi zerbitzua. Ezinbestekoa da zerbitzu hori beharko duzuela guri jakinaraztea astebete aurretik.



Feminismoa

## Komunikaziorako plataforma digitaletan trebatuz

Covid-19aren pandemiak aurrez aurrekoak ez diren komunikatzeko modu berriak zabaldu die, modu birtualean komunikatu behar izatea ekarri du, familiarekin, lagunekin, lanean... Ikastaro honetan komunikatzeko plataforma birtual erabilienak aztertuko dira. Eta bide batez, sare sozial orokor zabalduenak ere nola erabiltzen diren irakatsiko da, beti ere komunikazioa eta harremanetarako moduak ikuspegi feminista batetik abiatuta.

Irakaslea:

**Leire Abiagar Elortza**, kazetaria, komunikazioan eta teknologia berrietan trebatua, marketing digitalean masterduna, eta Errotik Kooperatiba Feministan lanean dihardu 2018tik.

Iraupena:

**2 orduko 2 saio**  
Egutegia:  
**Urriak 7 eta 14**  
(eguztzenak)  
Ordutegia: 16:30-18:30  
Matrikula: 5 euro



Kultura  
birdefinitzen

## Literatura tailerra

XIX. mende bukaeratik hasi eta gerra zibilera arteko garaiko ekarpen literarioak aztertu eta irakurriko ditugu. Garai loratsua izan zen emakumeentzat; unibertsitateko aukera, bozka eskubidea, lan mundura sartzeko aukerak alde batetik eta momentuko aldaketa sozialak bestetik, XX. mende hasiera zurrargaria egin zuen. Aldaketa guzti hauek literaturan jasoa geratu dira eta idazleentzako eskutik egingo dugu Abangoardiaren ibilbidea.

Irakaslea:

**Ainhoa Aldazabal Gallastegi**, Euskal filologian lizentziatua (EHU), literatur kritika feministan formatua eta Skolastikako kidea.

Iraupena:

**3 orduko 4 saio**  
Egutegia:  
**Urriak 9, abenduak 18,**  
**otsailak 12 eta**  
**maiatzak 7 (barikuak)**  
Ordutegia: 17:00-20:00  
Matrikula: 10 euro



Emakumeen  
osasuna

## Autocoñocimiento: Osasuna eta ziklikotasuna ikuspegi feministatik

Osasuna ikuspegi feministatik lantzea inoiz baino beharrezkoa zaigun honetan, zure osasunaren eta hileroko zikloaren informazio gehiago izatea nahiko zenuke? Tailer honetan, osasun sexuarekin eta berdinaren artean, gai anitzenguz galdetzeko eta informatzeko aukera izango dugu: osasun menstrualaren autogestioa, ugalkortasun arduratsua, hormonen funtzionamendua, zoru pelbikoa, sexualitatea, plazera, etab.

Irakaslea:

**Irene Aterido**, soziologoa eta Genero eta Sexualitatean aditua.

**TAILER ESPERIENTZIALA  
ONLINE**

Iraupena:

**Ordu 1'erdiko 4 saio**  
Egutegia: **Urriak 17, 24, 31**  
**eta azaroak 7 (zapatuak)**  
Ordutegia: 11:00-12:30  
Matrikula: 5 euro  
Gazteleiaz izango da.  
Materiala euskaraz.

Emakumeentzako Jabekuntza eskola 2020-2021 Ondarsoan

urria

		1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

azaroa

						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

abendua

	1	2	3	4	5	6			
7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31					

otsaila

							1	2	3
4	5	6	7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30	31		

maiatza

								1	2
3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29	30	31	



## COVID-19a: Aldaketa honen aurrean, orain zer?

COVID19k eragindako krisiak eragin zuzena du gure eguneroko bizitzan, gure pentsamenduetan, sentimenduetan eta egiteko moduetan. Ikastaro honetan aztertuko dugu nola kokatu emakume gisa krisi honen aurrean, nola jarri gure bizitzaren balioa erdigunean. Prozesu horretatik indarberrituta ateratzeko ariketak egingo ditugu gure bizipen eta gogoetatik abiatuta, aukerak aztertzeko, erabakiak hartzeko eta haien garapena errazteko, gure banakako eta taldeko autozaintza sustatuz. Bidea elkarrekin egiteak eramangarriagoa egiten du! Animateko zara?

**Irakaslea:**  
Nerea Redondo Otamendi, formakuntza erraztailea.

**Iraupena:** 2 orduko 4 saio  
**Egutegia:** azaroak 5, 12, 19 eta 26 (eguenak)  
**Ordutegia:** 17:00-19:00  
**Matrikula:** 10 euro

azaroa

				1		
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						



## Silvia Federicciren lana ezagutzen: Iraganeko eta gaur eguneko sorgin ehizak

Ikastaro honetan, Federiciren *Kapitalismoa eta emakumeen aurkako indarkeria* (Katakarak, 2020) liburuaren nondik norakoak ezagutuko ditugu, eta bertan jasotzen diren gaietan sakonduko dugu. XVI. eta XVII. mendeetako sorgin-ehizen bultzatzaileen asmoak aztertuko ditugu, eta ikusiko dugu zer-nolako lotura duten asmo haiek gaur egun munduko hainbat tokitan gertatzen ari diren sorgin-ehizekin.

**Irakaslea:**  
Amaia Astobitza Uriarte, itzultzailea eta Zornotzako M8 Plataformako kidea

**Iraupena:** 3 orduko 2 saio  
**Egutegia:** abenduak 11 eta 12  
**Ordutegia:** barikuan, 17:00-20:00, eta zapatuan, 10:00-13:00  
**Matrikula:** 5 euro

abendua

1	2	3	4	5	6	
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			



## Edertasun kanonak lodifobiaren aurkako ikuspegitik

Edertasun-kanonek eragina dute gure janzkeran, geure burua dugun "apaintzeko" moduan, zer kirol eta nola egiten dugun, elikatzeko moduan eta sexualitatean, besteak beste. Baina zergatik ez ditugu inoiz aipatzen? Tailer hauetan, edertasun-kanonek gorputzarekin dugun harremanean duten eraginaz hausnartuko dugu eta lodifobia zapalkuntza-sistema propio gisa aztertuko dugu.

**Irakaslea:**  
Irati Garcia López de Aguilera emakume feminista eta lodia.

**Edertasun- eta lodifobia-kanonen inguruko prestakuntza ikertu eta eskaintzen du 2016tik**

**Iraupena:** 3 orduko 2 saio  
**Egutegia:** urtarrilak 22 eta 29  
**Ordutegia:** 18:00-20:00  
**Matrikula:** 5 euro

urtarrila

			1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31



## Emakumeen osasuna

### Zoru pelbikoa lantzen

Ikastaro honetan, gure gorputzei egokitutako jakintza geureganatuko dugu, nola zaindu eta nola landu ariketa hipopresiboan bitartez. Ariketa horien bidez, emakumeek urteen eraginez edo ama izateren ondorioz izan ditzaketen arazoak tratatu, gutxitu eta eragozteko balio dute hipopresiboek.

**Irakaslea:**  
Nagore Basterra Berridi, fisioterapeuta eta osteopata.

**Iraupena:** Ordu beteko 10 saio  
**Egutegia:** Urtarrilaren 13tik martxoaren 17ra (eguztenak)  
**Ordutegia:** 17:30-18:30  
**Matrikula:** 10 euro

urtarrila

			1	2	3	
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

otsaila

		3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28



## Antzerki eraldatzailea

Antzerki teknika desberdinak baliatuz, gatazka edo gai sozial desberdinen salaketa egin eta leku publiko batean dagoen jendartea gaiaren inguruan hausnartzen jartzea da Antzerki eraldatzailearen xedea. Horrela, taldean aukeratutako gaiaren salaketa feminista burutzea izango da ikastaro honen helburua.

**Irakaslea:**  
Nerea Gartzia aktorea eta antzerki foro soziala lantzen aditua.

**Iraupena:** 3 orduko 4 saio  
**Egutegia:** Otsailaren 26a eta 27a, eta martxoaren 5a eta 6a  
**Ordutegia:** 18:00-21:00 (barikuak) eta 10:00-13:00 (zapatuak)  
**Matrikula:** 10 euro

otsaila

		3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

martxoa

		3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				



## Emakumeen osasuna

### Gure bizi-energia hobetzen: Chi-Kung hastapenean

Gorputz egitura eta bizi-energia hobetzen lagunduko diguten mugimendu leun eta errazak ikasiko dira. Ariketekin batera, arnasketa eta meditazioa landuko dira, estresa gutxitu, tentsioak askatu eta burua lasaitzen lagunduko diguten teknika eta mugimenduak praktikatuz.

**Irakaslea:**  
Idoia Eizmendi Aldasoro, Chi kung trebatzailea, berdintasunerako teknikaria eta Noka talde feministako kidea.

**Iraupena:** 2 orduko 5 saio.  
**Egutegia:** Otsailaren 23tik martxoaren 23ra (martitzenak)  
**Ordutegia:** 18:00-20:00  
**Matrikula:** 10 euro

otsaila

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28

martxoa

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

emakumeentzako jabetkuntza eskola 2020-2021 Ondarrran



## Emakumeen nortasuna eta subjektibotasuna

**Amatasuna modu  
osasuntsuan  
eta bizigarrian  
bizitzeko  
estrategiak**

Gaur eta hemen amatasuna exigente eta zail egiten duten hariak ikusi eta teoria feministen eta amatasunaren historiako ekarpenekin hausnarketa pertsonalekin eta talde dinamikekin amatasunaren praktika eta esperientzia bizigarriagoak bilatzea izan-go da ikastaroaren egitekoa, beti ere, egite horrek dakarren ahalduntzea eta interpelazio politikoa ere helburu izango ditugularik.

Irakaslea:  
**Ainara Gorostitzu Muxika**,  
kazetaria,  
haziera eta heziketa-gaietan  
espezialista ikuspegi  
feministatik.

Iraupena: **2 orduko 3 saio**  
Egutegia:  
**apirilak 15, maiatzak 6  
eta ekainak 3 (eguenak)**  
Ordutegia: **17:00-19:00**  
Matrikula: **5 euro**



## Kultura birdefinitzen



**BOTA UXU!**

Herri irrintzilari ugari daude munduan, tartean geurea. XXI. mendean egon arren, zorionez, bizirik daukagun antzinako altxorra dugu irrintzia: emozioak adierazteko hitzik gabeko hizkuntza. Nahi duzu botatzen ikasi? Zer behar da? Ikasteko gogoia. Gainera, bote-retsua sentituko zara, lotsak galduko dituzu, bihotza alaituko zaizu eta gainera, zientzialarien arabera, terapeutikoa da.

Irakaslea:  
**Nekane**  
**Akarregi Amutxastegi**  
irrintzilaria.

Iraupena:  
**2 orduko saioa**  
Egutegia:  
**Ekainak 18 (barikua)**  
Ordutegia:  
**18:00-20:00.**  
Matrikula: **5 euro**



## Feminismoa



**Autodefentsa  
Feminista**

Emakumeon ahalduntzea bultzatzeko tailerra. Indarkeria matxista bere osotasunean ulertu eta eraso ezberdinen identifikazioa bilatuko da. Honen aurrean, Autodefentsa Feministari helduko zaio, eraso ezberdinei aurre egin eta gure baitan seguru eta babes-ituak sentitzeko estrategiak landuz.

Irakaslea:  
**Emagin, Ikerketa eta**  
**Formazio feminista elkarte.**

Iraupena:  
**4 orduko 2 saio**  
Egutegia:  
**Uztailak 6 eta 7**  
Ordutegia:  
**10:00-14:00**  
Matrikula: **5 euro**

apirila

		1	2	3	4
5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28
29	30				

maiatza

			1	2	
3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26
27	28	29	30		
31					

ekaina

		1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29	30
31							

uztaila

			1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27	28
29	30	31					



## Parte-hartze guneak

Ondarroako Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak ez du Eskola hutsa izan nahi, parte-hartze gunea baizik. Horregatik jarraian dituzuen parte-hartze guneak zabalduko ditugu eta horietan parte hartzera animatzen zaituztegu. Talde ireki horietan parte hartzeko interesa baduzu, Etxelilan eskatu informazioa.



### Aringain-san

Gero eta gehiago gara norbere gorputzaren eta mugimenduen kontzientzia hartuta jardura fisikoaz gozaten dugun emakumeok. Kalean beldur eta lotsa guztiak gainditu eta gustura jarduteko helburuarekin jarduten gara topagunean, partaideen arteko harremanak sustatuz eta elkarrekin espazio publikora irtetera bultzatuz. Heziketa Fisikoan lizentziatua den emakume baten dinamizazioaren bidez, norberaren gaitasunen araberako entrenamendu pautak eskaintzen dira, erritmo desberdinetan aurrera egiteko (mailaren arabera) taldeak osatuko dira). Aurten, beste urrats bat emango dugu kirol modalitate desberdinak lantzen.

Dinamizazioa: **Arantza Burgoa Agirregomezkorta** (Irakasle eta kirolzalea)  
Aurkezpena: **Urriak 8, 19:00etan.**



### Literaturaz eztabaidatzeko gunea

Hilean behin (azken barikuetan) eta eskolako ikasleek bultzatuta, literatura, irakurketa eta eztabaida kritikoa lantzeko saioak burutuko dira ikuspegi feministatik.



### andrabanda feminista

Emakumeentzako perkusio eta ahots "banda". Bandak filosofia feminista izango du oinarri, eta emakumeon jabekuntza pertsonala eta kolektiboa sustatuko du; horrela, espazio publikoan emakumeen presentzia eta protagonismoa bultzatuz eta aldarrikapen feminista zabalduz.

**ANDRABANDAREN IKASTARO BERRIA**  
urriak 17 eta 31, azaroak 14 eta 28 | 10:00-14:00  
Izena emateko eta informazio gehiagorako galdetu Etxelilan.



### neska gazteen txokoa

Gure zalantzak eta kezak partekatzeko espazio falta sumatzen dugu. Zenbait problematikari buruz gehiago jakin nahi genuke. Geure burua, pertsonalki eta kolektiboki, maitatzeko espazioak ireki nahi ditugu. Feminismoan eta feminismoaz hazteko gogoa gaudu. Gazte eta neska gara, egoera batzuez nazkatuta gaudu eta horien aurrean zer-bait egiteko gogoia sentitzen dugu, baina ezin jakin zelan aurrera eramán. Honen aurrean, txoko ireki bat sortzeko asmoz gaudu: feminismoa ezagutzeko, parte hartzeko eta geure ekintza propioak erakitzeko. Bazatuz zu ere?

Dinamizazioa: **Miren Larrea Murgoitio**  
(Feminista eta Ondarroako hezkidetza Egitasmoa kidea)  
Aurkezpena: **Azaroak 6, 18:00etan.**



# erakusketak

Etxelilako ordutegian ikusgai  
**martitzenetik barikura**  
16:30etatik 20:30etara.

## URRIA-ABENDUA 2020

*Friden eta Chavelen artean*

### Miriam Rodriguez

Frida eta Chavela berezko zaien espazioan eta espaziotik elkarrizketan ari dira. Prozesu horrek ahaldu egiten ditu, eta mundua ezagutzeko, eta harremanak izateko modu berriak sortzen dituzte. Haiekin izango ditugun elkarrizketek eta gure artekoek jabeakuntza kolektiboaren ibilbidetik eramango gaituzte.



## URTARRILA - MARTXOA 2021

*amatasunak deserakitzen*

### Amaia Aparicio

Erakusketa hau amatasunaren errealitate ezberdinak erakusten saiatzen da, komunikabideek saltzen diguten ereduaz haratago. Amatasuna ederra izan daiteke ala ez, baina askotan dakartza sakrifizioak, mugagabeko ordutegiak, nekea, denbora falta...



## APIRILA-EKAINA 2021

*biba zueki*

### Berexi Art

Basauriko Berdintasun Arloak 2021ean "adineko emakumeei" eta "zaharrei" eskainitako egutegiko ilustrazioekin, erakusketa osatu dute. Izan ere, askotan, ahaztuta geratzen dira, justez, gaztea eta menderaezina den gure gizartean.



# ETXELILA

## Emakumin Topaleku

Jendaurreko ordutegia:  
martitzenetik barikura, arratsaldez

Artibai, 3-1.pisua  
94-613 40 08 / 664 54 73 67   
etxelila@ondarroa.eus

Etxelila Ondarruko Emakumin Topaleku  
 @Etxelila

# Udal Berdintasun Saila

Jendaurreko ordutegia:  
astelehenetik barikura, goizez

Musika plaza, z/g  
94-683 36 70  
faxes: 94-683 36 67  
rbaltar@ondarroa.eus  
www.ondarroa.eus



Ondarroako  
Udala

